

A6

Loa de las damas y galanes bascongados

Hurrengoa bezala, errima lerro bikoitietan duten distikoen (10 -, 8 a) segida da poema hau. Izenburua gardena da: Euskal Herriko (*Euskel Erria*) eta Arabako gizon eta emakumeak goraiatu gura ditu, poema arranditsuan. Jaun Zerukoa da dohain eta grazia guztiak eman dituen, eta liburu zaharrak dira esaten duenaren berme. Euskal Herriak eta Arabak goraiagarri dituzte jende noblea, dama ederrak eta gizon galantak, hizkuntza (euskara) eta Zeruko Jaunaren fedea. Beldur da ezingo dituela hainbesteko edertasunak behar bezala laudatu eta era guztietako laguntza eskatzen du: Famak lagundu behar dio zabalkunde, txoriek lagunduko diote kantuan, eta herriko andre-gizonek (Joan Perez Lazarragakoaren jaioterriaren inguruko herriak dira Barrundia eta Asparrena) eta nobleek emango diote ausardia, indarra eta gaitasuna.

<1169r>

Loa de las damas y galanes bascongados. El autor

Fama handia, zatoz nigana; arren, zaakit lagundu, ¹ mundu guztiko erreinuetan laster egizu famadu.	
Txoriak eta tortolatxoak, gura deusut ² agindu gure herriko abantajaok ³ daikezula kantadu ⁴ oi ⁵ honezkero ⁶ gox hotzetan da ⁷ kantu dulceaz loadu.	5 10
Jaun Zerukoa, nik errazoaz beti zaidaz loadu, ⁸ zerua eta izarrak bere oita ze bitez ixildu; ⁹ itsasoorrek orbe guztiaz ¹⁰ beti zagie laudatu, ¹¹ zegaiti dozun Euskel Herria hainbat bentajaz ¹² dotadu. Itsasoori tinta balidi, zeru zabala liburu, ¹³	15 20

¹ *zaakit lagundu*: ‘lagundu zakizkit’.² *gura deusut*: ‘gura deusuet, gura dizuet’.³ *abantajaok*: ‘abantailok, bikaintasunok’.⁴ *daikezula kantadu*: ‘geroan kantatu ditzazuela’.⁵ *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.⁶ *onezkero*: ‘hemendik aurrera’.⁷ *da*: ‘eta’. Pasarte guztia honelaxe ulertu dugu: ‘Txoriak eta usapaltxoak, agindu nahi dizuet gure herriko bikaintasunok honezkero goiz hotzetan kantatu ditzazuela eta kantu gozoaz goraiatu ditzazuela’.⁸ *zaidaz loadu*: ‘zagidaz loadu, loaduko zaitut, laudatuko zaitut’.⁹ *ze bitez ixildu*: ‘ez bitez isildu’.¹⁰ *itsasoorrek orbe guztiaz*: ‘itsaso horrek orbe guztiagaz, itsaso horrek eta orbe guztiak’; ‘X Y(ga)’ egitura da, ‘Xrekin Y’ egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.¹¹ *zagie laudatu*: ‘zagiez laudatu, laudatuko zaituzte’.¹² *bentajaz*: ‘abantailaz, bikaintasunez’.¹³ *Itsasoori tinta balidi, / zeru zabala liburu*: ‘Itsaso hori tinta bihurtuko balitz, eta zeru zabala liburu (bihurtuko balitz)’.

	oi Arabako abantajaok ¹⁴ ezin litezke kontadu. Jente noblea, ezin nesake, ¹⁵ behar deustazu parkatu; flakezeonen bildur nax, baia oita gura dot azartu. ¹⁶	25
<1169v>	Barrundiako dama galantak, esaten irakastazu, ¹⁷ Axparreneko larrosatxoak, geraziea ¹⁸ indazu; ¹⁹ morroe ²⁰ galant estiraduak, ²¹ oi defendidu nagizu; oi Gaztelako errege jauna, erregiagaz ²² ikatsu ²³ zeure kortean dama ederrik nola bapere ez dozun, zegaiti Euskal Herrian dira eder guztiok dotadu. ²⁴ Ene berbaok, jente noblea, ze daidizu pensadu ²⁵ neure herria alabatzerren ²⁶ nik ditudala finjidu; ²⁷ badanik bere, ²⁸ jakin egizu oita naxala fundadu oi antxinako liburuetan, zeinetan ditut ezautu: Euskal Herriau oi nola eben errege batek pobladu jente noblez da lenguaajeaz, ²⁹	30 35 40 45

¹⁴ *abantajaok*: ‘abantailok, bikaintasunok’.

¹⁵ *nesake*: ‘esan nezake’.

¹⁶ *azartu*: ‘ausartu’.

¹⁷ *irakastazu*: ‘irakats iezadazue’.

¹⁸ *geraziea*: ‘grazia, trebetasuna’..

¹⁹ *indazu*: ‘emaidazue, eman iezadazue’.

²⁰ *morroe*: ‘mutil gazte ezkongabe’.

²¹ *estiraduak*: ‘prestuak, estimatuak’.

²² *erregiagaz*: ‘erreginagaz, erreginarekin’; litekeena da hemen ere “X Ygaz” egitura izatea, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko, hots: ‘errege jauna eta erregina’.

²³ *ikatsu*: ‘ikas ezazu(e)’.

²⁴ *dotadu*: ‘dohatu, dohainez hornitu’.

²⁵ *ze daidizu pensadu*: ‘ez ezazu(e) pentsatu’.

²⁶ *alabatzerren*: ‘alabatzearren, alabatzeagatik’.

²⁷ *finjidu*: ‘asmatu’.

²⁸ *badanik bere*: ‘aitzitik, hala ere’.

²⁹ *Euskal Herriau oi nola eben / errege batek pobladu / jente noblez da lenguaajeaz*: Zein erregeri buruz ari da? Tubal ote? Ez dakigu poema hau zehazki zein urtetakoa den eta, beraz, ordurako egileak ezagutu zitzakeen Garibai (1571) edo Poza (1587) bezalako autoreen obrak. Hala ere, poemaren aurrekoak dira, zalantzarik gabe, Erdi Arotik datorren tradizio tubalista, bai eta [Annio da Viterbo](#) faltsutzailearen Espainiako antzinako erregeen zerrenda ospetsua ere, haietako lehena Tubal izanik; orobat, Lucio Marineo Siculoren historia (1530), non baieztatzen den euskara Iberiar Penintsulako lehen hizkuntza izan zela. Euskarazko testuetan orain arte ezagutzen genuen Tubalen lehen aipamena Etxeberri

	zeinak eusten agindu ³⁰	50
	Zeruko Jaunaren fede santua oi legiela kunplidu. ³¹	
<1170r>	Oi Salamonek ³² eskribitzen dau, jente noblea, jakizu, bere bizian oi ez ebela	55
	jente hobarik topadu.	

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A6 – *Loa de las damas y galanes bascongados* (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

Ziburukoaren *Elizara erabiltzeko liburuaren* (1638) “Dedikazionea”-n dago: *Bañan preza zazu zeren / Egina den Eskaraz, / Aita Tubalen baitharik / Dugun hitzte zaharraz.*

³⁰ *zeinak eusten agindu*: ‘zeinak agindu zien’; erregeak jendeari, alegia.

³¹ *legiela kunplidu*: ‘kunplitu zezatela’.

³² *Salamonek*: ‘Salomonek’.